

ekinbat! GAZTEOK KOMUNITATEAK JOSTEN

Desabantaila egoeran dauden gazteen enplegarritasuna eta inklusioa erretea helburu

Hainbat eragileren artean elkarlanean sortutako proiektua

ekinbat! [Ikaslan Gipuzkoak](#), [Ikertze Kultur Elkartek](#), [Zabalduz kooperatibako Batzen proiektuak](#) eta [Sorginlore Gizarte Elkartek](#) aliantzan bultzatu dugun proiektua da, EHU/UPV, Zehar-Errefuxiatuekin eta Lanbide Heziketako zein Helduentzako Ikastetxe ezberdinekin elkarlanean.

Proiektuaren helburuak

Proiektuaren helburu nagusia Gipuzkoan bizi diren eta desabantaila egoeran dauden gazteen enplegarritasuna eta inklusioa erraztea da. Horretarako, jendartean, komunitatean eta kulturen parte hartzea sustatzen duten testuinguruak sortuko ditugu. Horrez gain, eragile estrategikoei bideratutako emantzipaziorako funtsezko ezagutzak zabaltzen dituzten tresnak ere garatuko ditugu.

Parte-hartzea funtsezko elementua da proiektu honetan. Gazteekin oinarritzko gaitasun soziolaboralak eta errotze soziokulturala garatuko ditugu, baita ekosistemarekiko elkarrelikatzea ere. Era berean, parte-hartzeak enplegu-aukerak sustatzea ahalbidetuko du.

Ikuspegi prebentiboa, sistemikoa eta generokoa duen proposamena da hau, eta euskararen sustapena eta jasagarritasuna barne hartzen dituen.

Erronka bakarra, hiru proiektu

Kutxa Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutako proiektu honek aipatutako erronka bakarrari erantzunak bilatzea du xede. Horretarako, baina, hiru proiektu zehatz garatuko dira 2025eko abendura bitarte, proiektuan parte hartzen duten eragile ezberdinek lideratutakoak:

1. **gazteekinbat!:** pedagogia feministen bitartez, Gipuzkoako Hasierako Lanbide Heziketako zentro publikoetako gazteen parte-hartze soziopolitikoak sustatuko da, tokiko ekosistemen eta zentroen artean sinergiak sortuz.
2. **emakumeekinbat!:** emakume gazteek ahalduztzeko eta laneratzeko tresnak garatuko dituzte, teknika artistikoetan oinarritutako introspektzio sortzaile prozesu baten bitartez.
3. **eragileekinbat!:** desabantaila egoeran dauden gazteak emantzipatzeko ezagutzak sozializatuko ditugu, enpleguaren bidez helduarora igarotzeko baliabideen gida eleaniztun baten bitartez.

Prentsa oharrari erantsita topatuko duzue proiektuaren gidaritzan parte hartzen duten eragileen ordezkarien argazkia. ([IRUDIA](#)).

Zuen hedabidean proiektua lantzeko interesa izanez gero, elkarriketa edo erreportajeren baten bitartez, idatzi ekinbat.erronka@gmail.com helbidera.